

ttipi ttapa

2003ko martxoaren 20a • XXIII. urtea



Irene Arrizurieta
Egunkariko langilea **03**

1995etik Egunkarian lanean ari zen Leitzako kazetaria. Egunkaria itxi eta zenbait lankide atxilotu ondotik, «13 urteko lana arrazoirik gabe kakaztu» dutela dio.



Hauteskunde
prozesua abian **04**

Maiatzaren 25ean aukeratuko dira herrietako alkate-zinegotziak eta Nafarroako Parlamentuaren osaketa berria. Lanean hasiak dira alderdi eta plataformak.



24 Migel Mari Urrutia – **Patxi Olazar**

Erremonteko kimu berriak

txartelak
fakturak
kartelak
aldizkariak
logotipoak

...

Herriko Etxeko Plaza, 1 • BERA
948 63 11 88 • kulturkari@euskalnet.net



KULTURKARI

publizitatea  zerbitzuak

Egunkaria aurrera!

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

deitu **943 30 35 55 / 943 30 35 54**
635733389 / 635733388

telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

www.egunero.info/harpidetza

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN

Euskarak behar zaitu

Egunero

«Egunkariaren hamahiru urteko lana egun batez arrazoirik gabe kakaztu egin dute»

- Irene Arrizurieta leitzarrak zortzi urte daramazki Euskaldunon Egunkarian lan egiten.
- Gizarte eta Kultura sailetan ordezkapenak egiten hasi zen Andoainen. Gero, Iruñeko delegaziora joan zen eta Nafarkarian aritu zen bi urtez. Orain «Egunero»n ari da halabeharrez.
- Ireneren ustez, «M adrieko Gobernuak iritzi publikoaren aurrean euskal gizarteari min emateko, dena ETArekin nahasi besterik ez du egin behar, dena zaku berean sartu eta kitto!».

Aitor AROTZENA

Egunkaria itxi eta zenbait lankide atxilotu ondotik, zein egoeratan zaudete langileak?

151 langileentzako erregulazio espedienteak aurkeztu zuten martxo hasieran Lakuana, baina Nafarroako langileen egoera ezberdina da. Gure espedienteak Madrilerara igorri behar dira, orduan gurekin beste formula bat pentsatzen ari dira, lau langilerengatik ezin baita beste guziaz atzeratu. Kontuan hartu behar da Egunkariaren kontu guziaz blokeatuak daudela, beraz ez da dirurik. Gure lana kazetari lana da eta «Egunero» ateratzen dugu batzuk, baina bertze hamar lan batzorde ezberdin sortu dira: langileen arazoetaz arduratzen dena, nazioarteko harremanetaz arduratzen dena, erakundeetako harremanetaz arduratzen dena, alderdiak, sindikatuak,

herrietako batzordeekin harremanak...

Harpidetza kanpaina ere egiten ari zarete. Zer moduz doa?

Egunkariak, hau guziaz gertatu baino lehen, 6.200 harpidedun zituen. Manifestazioan berean, 2.000 lagunek eman zuten izena eta Anoetan, Erreala eta Osasunaren arteko futbol partida baino lehen, beste milak. Gero, etengabe iristen ari dira deiak eta eskaerak. Orain horiek denak bideratzen ari gara. Harpidetza kanpaina oso ongi doa, baina ezberdina da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan. Hemen 500 harpide genituen eta orain bikoiztu egin nahi da. Horretan ari gara, batez ere herrietako ba-

«Euskal kutsua duen guziarekin bukatu nahi du Madrileko Gobernuak. Aniztasuna eta ezberdintasuna hankapetu nahi dute, denak gaizkileak garela esanez»



Irene ARRIZURIETA *Egunkariako langilea*

tzordeek egiten duten lanaren bidez. Gero, bada dirua eman nahi duen jendea ere. **Egoera gogor honetatik Egunkaria indartua aterako dela erraten ahal da?** Min handia egin digun kolpea eman digute, ostiko gogorra izan da, baina honetatik zerbait positiboa atera behar da: Donostiako otsailaren 22ko manifestazio erraldoi hark frogatzen du euskal gizartea gurekin dagoela eta jende hori bideratu behar dela Egunkaria berri bultzatzera eta zutabe sendoagoak egitera, lan duinagoa eta hobea egitera. Ez gara berriro hutsetik hasiko, baina 13 urteko lana lapurtu digute. Zaila izanen da, baina argi daukagu produktu hobea atera nahi dugula

eta hori egitera joanen gara, zutabe sendoekin. Horretan ari gara. Hau ez da ehun metroko laisterketa, maratoia baizik. Maratoian jakin behar da momentu onak aprobetxatzen eta momentu txarretan mantentzen. **Bertze neurri batean, lehen Nafarkariari laguntza ukatu zion Nafarroako Gobernuak, orain Del Olmo epailearen erabakiak... Zergatik horrelako erasoak Egunkariari?**

Madrileko Gobernuak ez du onartu nahi euskal gizarte bat badela, egituratua dagoela, kultura propioa duela, bere egunkaria, kultura eta komunikabideak dituela. Euskal kutsua duen guziarekin bukatu nahi dute, Espainia handia eta bakarra nahi dute. Aniztasun eta ezberdintasuna hankapetu eta kendu nahi dute, denak gaizkileak garela esanez.



Hauteskunde hauetatik aterako den Parlamentu berria ekainaren erdi aldera osatuko da, emaitzak ofizialdu ondotik.

APIRILAREN 21EAN BUKATZEN DA AURKEZTEKO EPEA

Azkeneko momentuan erabakiko dira udal-hautagaien kandidaturak

Maiatzaren 25eko hitzorduari begira ari dira buru-belarri lanean herrietan alderdi politiko eta plataformak, bakoitza bere kandidatura prestatzen. Nafarroan Parlamentua ere aukeratuko da maiatzaren 25ean. Giroa bero-bero dago, beraz. Eta ez bakarrik esparru politikoan gatazka nahikoa badelako, udal kandidaturak prestatzeak izaten duelako nahikoa lan, berez, lau urtez udal administrazioa gestionatzen aritzeko prest dagoen jendea bilatzen ere.

J. IRIGOIEN

Egoera eta giro aski desberdina zen 1999ko ekainaren 13ko Udal eta Parlamenturako hauteskundeak izan zirenean. Nafarroa Garaian, gure eskualdeari dagokionez, Parlamenturako hauteskundeetan EH izan zen alderdirik bozkatuena 4.862 boturekin, eta bigarren EA-EAJ koalizioa 4.556 boturekin. Kontuak eginez, bien artean 9.418 botu erdietsi zituzten Parlamenturako eta UPN, PSN eta CDN-k 5.667 botu.

Bertzalde, Nafarroako eskualde honetan dauden 28 herri eta kontzejuetako alkatetza ia guztiak ere alderdi eta joera abertzaleko kandidaturen eskuetan daude momentu honetan, baina badira bertze herri batzuetako alkatetzak horrela ez direnak: Areso, Elgorriaga, Oieregi eta Zugarramurdi.

BATASUNA ZEGOEN HERRIETAN PLATAFORMA BERRIAK

Maiatz honetako hitzordua iluntasun gehiagorekin ikusten da, batez ere, Batasuna legez kanporatzeak ekar lezakeenagatik. Kontuan hartu behar da Leitza, Goizueta, Bera, Arantzeta eta Zubietako alkatetzak alderdi horren esku daudela gaur egun, eta gauza jakina da Batasunaren legez kanporatzeko prozesua dela medio, hauteskundeetara aurkezteko edo edozein ekintza egiteko eskubidea galdu duela alderdi honek. Hori dela eta, Batasunatik datorren ezker abertzaleak berrantolatzea erabaki du. *“Udal hauteskundeetara aurkeztuko gara ez dugu zalantzarik”*. Oraingoz herri plataformak aurkezten ari dira. Lesakan, Baztanen, Goizuetan, Leitza... eta momentuz Nafarroako Parlamenturako zein gisatara aurkeztuko diren ez dute zehaztua.

ARALAR LEITZAN ETA BAZTANEN

Bertzalde, ezker abertzaleko magalean sortutako Aralar-ek jakinarazi digunez, oraindik erabat lotuak ez badituzte ere, Aralar izenarekin aurkezteko lanean ari dira Leitzan eta Baztanen. Berzete zenbait herritan Aralar-eko militante eta sinpatizanteek kandidatura zabalagoen aldeko apostua egin dute. Lesakan, konparaziora, *Onin Plataformaren* alde ari dira lanean.

EAJ-EA ELKARREKIN ARANTZA, IGANTZI ETA LESAKAN

Orohar, 1999ko formula berbera errepikatuko dute herri guztietan. Arantzan, Igantzin eta Lesakan zerrenda bakarrekin presentatuko dira duela lau urte bezala. Gainerako herrietan alderdi bakoitzak bere kandidatura aurkeztuko du. EAK Baztanen, Leitzan, Beran eta baita Malerreka-Bertzaranako ahal duten herri guztietan. EAJ-PNVk berea presentatzen saiatuko da Beran. Horrelaxe azaldu digute bi alderdi hauek Iruñean dituzten prentsa arduradunek. Martxoaren hondar alderako kandidatura gehienak erabakiak egotea espero dute.

UPNk LEITZA ETA BAZTANEN SEGURU, ETA BEHARBADA HERRI GEHIAGOTAN ERE

"Oraindik goizegi da zehazteko azkenean zenbat herritan lortuko dugun kandidatura presentatzea, baina Leitzan eta Baztanen segurua da". Halaxe erantzun digute UPNko bozeramaileek. Martxoaren hondar alderako gauzak lotuagoa izatea espero dute.

HAUTESKUNDE HAUEN EGUTEGIA

Apirilaren 16tik 21era da kandidatek aurkezteko epea. Ofizialki apirilaren 28an argitaratuko dira udal eta Parlamenturako hautagaien zerrendak, eta hauteskunde kanpaina maiatzaren 9tik 23ra luzatuko da.

ZERRENDA IREKIAK

250 biztanle ez dituzten herrietan

250 bizilagun baino gutiago dituzten herri eta kontzejuetan zerrenda irekiak izanen dituzte. Egoera horretan daude Arano, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Oieregi, Oitz, Saldias, Urrotz eta Zugarramurdi. Herri eta Kontzeju hauek guztietan pertsona ematen zaie botoa eta ez zerrendei herri handiagotan egiten den moduan. Izen zerrenda horren barruan boto gehien eskuratzeko duen hautagaia da, zuzenbidean, alkate izendatuko dena.

ZINEGOTZI KOPURUA

188 zinegotzi aukeratuko dira

Herri guztietan, Legasan izan ezik, 1999ko zinegotzi kopuru berbera aukeratuko da aurten: Arantzan 7, Aranon 5, Areson 7, Baztanen 13, Beran 11, Beintza-Labaieren 7, Bertizaranan 7, Donamarian 7, Donezteben 9, Elgorriagan 5, Etxalarren 7, Eratsunen 5, Ezkurran 5, Goizuetan 7, Igantzin 7, Iturenen 7, Legasan 7, Leitzan 11, Lesakan 11, Narbarten 7, Oieregin 5, Oitzen 5, Saldiasen 5, Sunbillan 7, Urdazubín 7, Urrotzen 5, Zubietan 7 eta Zugarramurdi 5.

ALDERDIAK ETA IZENAK

Alderdiak eta beste kandidaturak

1999an baino talde gutiago presentatuko dira aurten alderdien izena erabiliz. Orduan EHK 45 zinegotzi eta 5 alkatetza eskuratu zituen (Leitza, Goizuetan, Bera, Arantza eta Zubieta), EAK 37 zinegotzi eta 5 alkatetza (Baztan, Doneztebe, Ituren, Sunbilla eta Legasa), EAJ-EAK 13 zinegotzi eta 2 alkatetza (Igantzin eta Lesaka), EAJK bakarrik 2 zinegotzi, eta UPNk 7 zinegotzi eta alkatetza bakar bat ere ez, eta aparteko kandidatek 77 zinegotzi eta 13 alkatetza.

ORDAINSARIAK ALKATE ETA ZINEGOTZIEN ZAT

Nafarroako Foru Administrazioak finantziatuko du alkate-zinegotziendako ordainsarien zatirik handiena

Uztailetik aitzinera, hala erabakitzen duten Udalek Nafarroako Foru Administrazioari eskatzen ahal diote alkate eta zinegotziendako ordainsaria finantziatzea. UPN eta CDN alderdiek bultzatutako Lege Proposamen honek, gainerako alderdi guztien oniritzia jaso du tramitazio prozesuan, Batasunarena izan ezik. Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuak martxoaren 20an egiten duen batzarrean onartuta geldituko da aipatu legea, eta uztailetik aitzin, hala erabakitzen duten Udalek eskatu ahal izanen dute Foru Administrazioaren finantziatzea.

ORDAINSARIEN %50-80 BITARTEKO FINANTZIAZIOA

Herri bakoitzak duen populazioaren arabera definitu dira oinarrizko ordainsariak eta Udal bakoitzaren esku dago hori baino sari handiagoak ordaintzea. Denan den, Lege Proiektuaren arabera populaziorik gutien duten herriek finantziatzea

OINARRIZKO ORDAINSARIAK

ALKATEAK

Populazioa	Urteko ordainsaria	Finantziatzea (NG / Udalak)
<100	4.207,08 €	% 80 - 20
101 - 500	7.212,15 €	% 75 - 25
501 - 2.000	12.020,24 €	% 70 - 30
2.001 - 5.000	21.035,42 €	% 65 - 35
5.001 - 10.000	27.045,54 €	% 60 - 40
10.001 - 50.000	36.060,73 €	% 55 - 45
> 50.000	45.075,91 €	% 50 - 50

ZINEGOTZIAK

Populazioa	Urteko ordainsaria	Finantziatzea (NG / Udalak)
<500	869,28 €	% 70 - 30
501 - 2.000	869,30 €	% 70 - 30
2.001 - 5.000	1.303,95 €	% 65 - 35
5.001 - 7.000	1.736,92 €	% 60 - 40
7.001 - 10.000	2.607,89 €	% 60 - 40
10.001 - 25.000	3.786,38 €	% 55 - 45
25.001 - 50.000	4.988,40 €	% 55 - 45
> 50.000	7.212,15 €	% 50 - 50

ZINEGOTZI-DELEGATUAK

Populazioa	Urteko ordainsaria	Finantziatzea (NG / Udalak)
501 - 2.000	1.738,61 €	% 70 - 30
2.001 - 5.000	2.607,90 €	% 65 - 35
5.001 - 7.000	3.473,85 €	% 60 - 40
7.001 - 10.000	5.215,79 €	% 60 - 40
10.001 - 25.000	7.572,75 €	% 55 - 45
25.001 - 50.000	9.976,80 €	% 55 - 45
> 50.000	14.424,29 €	% 50 - 50

handiagoa izanen dute Foru Administrazioetik, beti ere, %50-80 bitartean. Urtetik

urtera Kontsumorako Prezioen Indizea + 2 puntu handituko dira ordainsariak.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com
ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidente: Pello Apeztexea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena.
Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Konxiki Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi.
Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senperereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	25 €
Espainia	25 €
Ipar Euskal Herria	35 €
Europa	35 €
Amerika	105 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	20 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Ricardo Baroja ikastetxe publikoa

Ikastetxe honetako klaustroak «Egunkariaren» itxiera salatu nahi du, euskaldunok euskaraz dugun egunkari bakarra baita. Egunkariko akziodunak gara duela 4 urtezgerotik eta gure jardueretan «Egunkaria» erabili dugula eta erabiltzen segitzeko asmoa dugula adierazi nahi dugu, informazioa euskaraz eskaintzeaz gain egunkari profesional, independente eta anitza dela pentsatzen baitugu. Ikastetxe honetako klaustroak bat egiten du joan den larunbatean Donostian egin zen manifestazioarekin, baita hemendik aitzinera egingen diren ekimenekin ere.

Era berean, atxilotutakoek jasan duten tra-

tua salatu nahi dugu, terrorismoaren kontrako legediaren babespean estatu espainiarren etengabeko giza eskubideen urraketak ematen baitira.

Idatzi hau eskolako gurasoei, nafar administrazioari, ttipi-ttapa aldizkariari eta Egunkariari ailegarazteko konpromisoa hartzen dugu.

Beran, 2003ko otsailaren 26an. Ricardo Baroja ikastetxeko klaustroa.

Lekaroz-Elizondo BHIko irakasle talde baten oharra

Gaur, hilaren 13a, ortzeguna, Lekaroz-Elizondo BHIko irakasle talde batek sindikatu, eragile sozialek, Euskara Kontseiluak eta Euskaldunon Egunkariako langileek deitutako deialdiarekin bat egin dugu Euskaldunon Egunkariaren itxiera salatzen.

Irakaskuntzari dagokionez, ikasle eta irakasleoi gure eguneroko lanean ezinbertzeko dugun lan tresna bat kendu digute eskuartetik.

Hori dela eta, irakasle talde batek gaurko lan orduari dagokion lan saria Egunkariara bidaltzea erabaki dugu; eta ohar honen bidez guraso zein ikasleei gure jarreraren berri eman nahi dizue-

gu.
Bertzerik gabe, hurrena arte.
Egunkaria aurrera!!!

Lekarozen, 2003ko martxoaren 13an

harpidetzak 03
tarifa berriak

ESPAINIA	25 €
EUROPA	35 €
AMERIKA	105 €
Baztan, Bertizarano, Urdazubi, Malerreka, Leitza-Areso	20 €
Sara, Senpere, Azkain okinekin	30 €
Sara Herriko Etxeko Edantegian	20 €
Bortziriak, Goizueta eta Arano	DOHAINIK

AGENDA egunero egun
LIBRO, DISKA eta JUSTIZIA

ttipi-ttapa urtebetetzea

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Egunkaria 2003-02-20

«2002. urtean baino txirrundulari hobea naizela sentitzen dut. Progresioa somatu dut. Joan den urtean irabazi nuenean ihesaldian sartu eta sprint-a irabaziz izan zen. Suerteza izan eta dena ongi ateratzea behar zen garaipena lortzeko. Martxoaren 2an lortutako garaipena, aldiz, lasterkaldiaren momentu batean indartsuena nintze-la sentituz lortu nuen».

Jon BRU
Berako txirrundularia
D. Noticias 2003-03-04

«Seguruenik bati baino gehiagori huts egin izanen diot, ezinezkoa da denen gustura lan egitea. Batzuetan ezetz erran behar izanen diot lagun bati edo bizilagun bati, baina herri tikietak politikak gauza horiek ditu eta akaso bada barkatu ez nauen jendea».

«Nahi izanda ere, dirulaguntza publikorik ez baduzu, ezin duzu deus ere ez egin»

Miguel SAN MIGUEL
Doneztebeko alkatea
D. Navarra 2003-03-12

• 11 GALDERA LABUR •



Ainara RODA AZPIROZ *Leitzako pianojole eta abeslaria*

Musika zalea, musikagilea... Afizioa ala ofizioa?

Musika zalea. Afizioa eta ofizioa.

Musika munduan «oilo ipurdia» edota emozio ikaragarria noiz?

Zuzeneko kontzertu batean musika bihotzera iristen denean.

Zuk kantatzerakoan, zein instrumentu lagun?

Gehienetan pianoa. Orkestra bat ere ez legoke gaizki.

Boza lantzen da, noski, baina berezkoa ez al da zerbait behar?

Bai, berezkoa behar da, baina lantzen ez bada...

Entsaioretan bizilagunak ez al dira aspertzin?

Alderantziz. Horretan suerte handia izan dut.

Eskolatan ikasordutan musika saio-

ak murrizteko bidea jarri dute...

Ez da bide ona. Musikak sentsibilitatea eta beste arlo asko garatzen ditu.

Martxoaren 8an, bost emakume herriko musika emanaldian. Propio ala horrela suertatu zen?

Horrela suertatu zen, baino ez dago gaizki, ezta?

«Garaipen Operazioa» (Operación Triunfo) euskal komunikabideetan?

Ez dakit...

Hamaika aldiz entzun duzun kanta eta abeslaria...

«Nacqui all'affanno», Anne Sofie von Otter mezzopranoak abestia.

Erantzun gabe gelditu den galderaren bat?

Gogorra al da musika karrera ikastea?

Erantzun...

Bai, ordu asko behar dira egunero.

I CHE
MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara

☎ 948 637404
☎ 900 704704

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • **LESAKA**

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinak Angulak Orma antzinak Leihoak Ateak Arkuak Pilareak	Tximiniak Erlazak Moldurak Zokaloak Hilarriak Marrazkiak
--	---

'Abujandada' Mazzoa
Zahar antzekoa Txapeatua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

BERTSOLARITZA

Nafarroako txapelketaren finala martxoaren 30ean Lesakan

Finalaurreko azken saioa igande honetan egingen da Goizuetan

ttipi-ttapa

Herriz herri eginda bertso ligaren ondok martxoaren 9an Elizondoko Antxitonea trinketean egin zen lehenbiziko saioarekin abiatu zen Nafarroako Bertsolari txapelketa. Finalaurreko bertze bi saio egingen dira. Joan den igandean Baigorriko zinemari izan da bat eta Goizuetako Udaletxeko Ganbaran, igande honetan, martxoaren 23an, 16:30etan azkena. Finalaurreko hauetako bakoitzean garaile suertatzen diren hiru bertsolariak martxoaren 30ean, 16:30etatik aitzin Lesakako Zambra aretoan jokatu den finalerako txartela izanen dute. Beraiekin batera, puntuaziorik hobereena hartzen duten bost bertsolariak sailkatuko dira.

Elizondoko saioan Sustrai Kolina, Bittor Elizagoien arraiostarra, Julen Zelaieta beratarra, Nerea Bruño, Oskar Estanga eta Egoitz Zelaia



ARTXIBOKOA

Bittor Elizagoien arraiostarrak hogeitabosgarren partehartzea izanen du Nafarroako txapelketan. 1979. urtean berreskuratu zenetik, ez du inoiz hutsik egin baztandarrak. Argazkia 1989. urteko txapelketakoa da.

aritu ziren. Aipatzekoa da Bittor Elizagoienek hogeita bosgarren partehartzea duela Nafarroako txapelketan. 1979an, Paulo Yanzi izenarekin berreskuratu zenetik, urtero-urtero parte hartu du eta bi aldiz txapelidun suertatu da.

Baigorriin, Amets Arzallus azken bi urteotako txapeliduna, Estitxu

Arozena eta Joxe Juan Zubieta Etxabe lesakarrak, Joseba Beltza, Fermín Mihura eta Eneritz Zabaleta izan ziren.

Goizuetan, berriz, Xabier Silveira eta Iñigo Olaetxea lesakarrak, Xabier Legarreta aranoarra, Aritz Saraguetta, Miren Artetxe eta Iñigo Ibarra lehiatuko dira.

Epaimahaia Jon Abril, Mikel Bujanda, Eneko Bidegain, patxi Larretxea, Saioa Mitxelena, Joxe Urroz eta Beñat Soulek osatuko dute.

Gaiak paratzen, berriz, Manolo Arozena, Josu Etxanobe, Ekintza Landa eta Manu Legarra ariko dira txapelketa osoan.

LANA

Otsailean 671 langabetu INEMen

Otsailean 671 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, urtarrilean baino 21 guttiagok. Nafarroan ere zerbait beheiti egin du langabetuak, 85 lagun guttiago baitzeuden lanik gabe, 19.504 guzira. Langabetuen adinari dagokionez, eskualdean 25 urtez beheitiko 72 gizaseme eta 56 emakume eta 25 urtez goitiko 223 gizon eta 320 emakume zeuden langabetuen artean otsailean. Joan den hilabeteko datuekin parekatuz, gazteen artean langabetuak goitu eta 25 urtetik goitiko artean beheiti egin duela erraten ahal da. Sektoreka, zerbitzu arloan zeuden langabetu gehienak, 389 pertsona, industrian 191, eraikuntzan 48 eta nekazaritzan 5, aitzinetik lanik egin gabeko 38 langabetuekin batera. Otsailean 360 kontratu berri egin ziren eskualdean, baina horietatik 62 bertzerik ez ziren mugagabeak izan.

© 948631076 • BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEAK
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 616 716 - 407 404 781

© 948630052 • Zalain • BERA

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

ZJ
Zalain
jatetxea

LESACA

BERA

Herriko ibilbide historikoa antzeztuko da igande honetan

Ricardo Baroja eskolako Guraso Elkarteak antolatua

Amaia eta Ainhoa

Ricardo Baroja Ika-tetxeko Guraso Elkar-teak antolatuta, dato-rreren martxoaren 23an ibilbide historiko antzeztua egingen da. Igan-dean arratsaldeko 16:30etan Herriko Etxe-ko Plazan hasiko da eta Berako historiari erre-pasoa egingo zaio an-tzerki talde, musikari, dantzari eta animatzai-leen laguntzarekin.

Aipatu, ikuskizuna-ren zuzendari artistikoa Ramon Albistur dela.

Akordeoi topaketa

Datorren martxoaren 30ean, Udalak eta Isi-doro Fagoaga musika eskolak antolatuta, akordeoi topaketa egingen da Beran. Euskal Herriko



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Erretiratu talde bat lanean ari da San Esteban elizan moldaketak egiten. Mar-txoaren 10ean, argazkian ageri den burdintzar hori eraman zuten kanpaido-rrerko eskaileran goiti, lehenbiziko solairuraino.

musika eskola ezberdi- zian ibiliko dira karrike- Pilotalekuan elkartuko netako ikasleak goiz gu- tan, eta gero, Eztegara dira denak.

FLASH

Kauleko bidea moldatuko da

Nafarroako Gobernuak 2004ko Azpiegitura Pla-naren proiektua onartu du. 2001-2003 Azpie-gituren Hirurteko Pla-nan eskatua zen Kaule bidea moldatzea baina eskaerak ez zuenez ai-tzineria egin, datorren hirurtekoan obra egitea onartu da.

Udal ondarea saldu da

Iazko martxoaren 26an Udalak Udalerriaren on-dasuna den Bortziriak kaleko, 60.eko bajera enkantearen bidez sal-tzea erabaki zuen. 2002ko ekainean epea bukatu zen eta ordurarte inork ez zuen eskein-tzarik aurkeztu. Aben-duaren 20an aldiz, In-gesoa, S.L. enpresak 248.250 euroko es-keintza egin ondoren udalak enpresa honi sal-duko dio ondasuna.

Korrika kulturala

Korrika kulturalaren ba-rreanean larunbatean, martxoaren 22an, ER3MU4K taldeak "Inon izatekotan" ikuskizuna eskainiko du. Kultur Etxean 20:00etan Jon Benito, Xabier Gantzarain, Ibon Egaña eta Pa-txi Gaztelumendi eta Tzesne musika taldea izanen ditugu musika, hitzak eta irudiak lotzen dituen ikuskizunarekin.

Antzerkia ostatueta

Martxoaren 28 eta 29an Lesakako Mairu antzerki taldeak bere saioak es-kainiko ditu. Pui eta Ziz-kan ostatueta izanen dira (ortzilan arratseko 22:00etan eta larunba-tan 20:00etan) eta zaz-pi bakarriketa aurkez-tuko ditu taldeak bi egun horietan.

EUSKARA

Azken azterketaren arabera euskararen erabilpena aunitz jaitsi da herriko karriketan

Bortziritako Euskara Man-komunitateak, bi urtetik behin, euskara Bortziritako karriketan zenbatean erabiltzen den neur-tzen du, metodologia zehatz ba-ten bitartez. Azken neurketa 2001eko azaroan egin zen, eta honen emaitzak orain aurkeztan ari dira. Neurketa horren arabe-ra, Berako karriketan herritarren

%38 bakarrik aritu zen euskaraz. Ez da ahantzi behar beratarren hirutik bik, %67ak zehazki, euskaraz ongi solasten dakiela. Bai-na datuak oraindik larriagoak dira. Izan ere, Berako karriketako elkarrizketetan haurrek parte har-tu ez duten kasuetan euskaraz aritu direnak %3 bakarrik izan di-ra.

Gehienek pentsatzen ahal du-te gazteen artean euskara gero eta gehiago erabiltzen dela, bai-na neurketa honetako emaitzek ez dute hori erraten. Gazteen hi-rutik batek, %35ek bakarrik era-bili du euskara eta, gainera, 1995etik honat egindako neur-ketetan atera den daturik baxuena izan da. Joan den ortziralean la-motenean egindako bilera bate-an aurkeztu ziren datu kezka-garri hauek.

Alzuri
 Sukalde tresneria eta opariak
 Landare eta loreak
 Telefon: 948 630 370
 BERA

ANSONEA jatetxea
 Eguneroko menua eta karta
 Asteburu eta jai egunetan menu berezia
 Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

LESAKA

Faxismoaren aurkako eguna antolatu da herrian larunbaterako

Goizez mendi ateraldia, arratsaldean manifestazioa eta kontzertua

Aitor AROTZENA

Faxismoaren Aurkako Eguna antolatu da larunbat honetan, martxoak 22, «Faxismoaren aurka, Euskal Herria aurrera» leloarekin. 10:00etan plazatik mendi irteera abiatuko da Sastrinera. Bertan haritz bat landatuko da, «borrokan aritzeagatik falta direnen omenez». 17:00etan solasaldia eskainiko dute Kattun Arnaldo Otegi eta Araitz Zubimendik. 19:30etan manifestazioa egingen da eta bideo emanaldia eskainiko da ondotik. 20:30etan barrikotea egingen da Fredi Paia eta Jokin Uranga bertsolariekin eta 23:00etan kontzertua: EH Sukarra.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Lesaka, Bera eta Leitzaren artean Nafarroako industria lur eremuaren %4a dugu, Nafarroako Lurralde Estrategia erakundeak egindako azterketaren arabera. Hiru herri hauetan, Nafarroako lanpostuen %3 eskaintzen dute, nahiz eta populazioaren %2a bertzerik ez bizi. Industrializazioaren arazo nagusia, leku fisikorik eza omen da. Lesakan erraterako, Otsango eta Alkaiegako industrialdeak (argazkian) beteak daude eta eskari gehiago izan arren, ezin da lantegiak jartzeko bertzeko lekurik eskaini.

FLASH

Diapositiba emanaldia euskaltegian

Larunbat honetan, martxoak 22, Ander Olaiola argazkilaria goizuetarraren diapositiba emanaldia antolatu du Lesakako Herri Eskolak, udalaren laguntzaz. 19:00etan hasiko da ekitaldia IKA euskaltegian eta Euskal Herriko irudiak izanen dira ikusgai.

Euskara Batzorde irekia

Heldu den astelehenean, martxoaren 24an, Euskara Batzorde irekia egingen da Lesakan, 19:30etatik aitzinera Matxinbeltzenez. Batez ere bi gai landuko dira, Egunkaria eta Korrika.

Irakeko gerraren aurka

«Petrolio interesengatik mila errugabeen heriotza eragingen lukeen» Irakeko gerraren kontrako akordio-proposamena ahabatez onartu zuten Udalak.

KIROLA

Beti Gazteko futbol talde nagusiak lidergoa hartu du

Seigarren jardunaldira arte esperatu behar izan zuen Beti Gazteko talde nagusiak denboraldiko lehendabiziko garaipena eskuratzeko. Liga hasieran jautsiera postuetan ere izan ziren, baina horiek aspaldiko kontuak dirudi-

te. Martxoaren 9an Ostadar taldeari irabazi ondotik lidergoa hartu zuen Beti Gaztek, zortzi jardunaldi falta direla. Horrela segitzekotan, heldu den urtean berriz ere Preferenten ikus ahal izanen ditugu Joxe Mari Erkiziaren mutilak.



ARGAZKIA: AITOR

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

IRU BIDE
ERREKETA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANIA
Janaridena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETKEA
ZEHU
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

ETXALAR

Larunbatean egin zen Larraburuan Magra Sariketako afaria

Hainbat elkarte urteroko Batzar Orokorak egiten hasiak dira

Joseba eta Nerea

Martxoaren 2an jokatuz ziren Larraburuko Magra sariketako finalak. Urtarriletik martxoa bitarte, igandero jokatu dituzte partidak musean nahiz partxisean eta parte hartu dutenak aunitz izan diren arren, musean 12 bikote eta partxisean 8, sariketa honetan irabazten den magra bikote bakarrak lortu zuen. Musean Santiago Olasagasti eta Jose Mari Arburua suertatu ziren irabazleak, Jabier Sansiñena eta Manuel Bizenteren antzinetik. Beraz, beraiek irabazi zuten urdaiazpikoa eta bigarren bikotearentzat izan zen sorbalda. Partxisean, musean ere irabazle izan zen Santiago Olasagasti gailendu zen, oraingo honetan Jabier Indaburu lagun zuela.

Martxoaren 15ean afaria egin zuten Larraburuan partehartzaile guzietan. Eta nola ez, ira-

bazitako magrak izan zituzten otorduko plater nagusia.

Altxata kultur elkarteko batzarra

Urte sasoi honetan egin ohi den gisan elkarte desberdinek Batzar Orokorak egiten ari dira. Altxata Kultur Elkarteak izan da lehenbizikoa, joan den igandean egin baitzuen. Eztabaidatu zituzten puntuen artean joan den urteko akta eta kontuen onartzea, 2003ko aurrekontua, junta berritzea eta galdera-eskaerak izan ziren. Aurtengo nobedadea Birjina Arburuak elkarteak utzi egin duela da eta bere lekua hutsik gelditu da. Beraz, honela gelditu da junta: Lehendakaria Ainara Arburua, lehendakariordea Iñaki Danboriena, idazkaria Nerea Mitxeltoarena eta bokalak Mari Asun Olagarai eta Kontxi Antxorena.



ARGAZKIAK: LAURA ELIZAGOIENEK UTZIAK

Ailegatu ahala joan zaizkigu aurtengo inauteriak. Astelehenean ez zuen eguraldiak batere lagundu, halere 50 gazte bildu ziren baserri baserri eskean ibiltzeko prest. Eurria zela eta, aurtan bai goiko eta bai beheko auzoetan ibili zirenek traktoreetan egin zuten auzoetako buelta. Asteartean berriz, eguraldi aparta egin zuen eta horrek jendea inoiz baino gehiago mozorrotzera animatu zuen. Orgak ere bertze urtetan baino gehiago ikusi genituen.

Larraburuko Batzar Orokorra

Martxoaren 30ean eginen dute Larraburu Jubilatuko Elkarteak kideek urteroko batzar orokorra. 12:30etatik aitzin, bertzeak bertze joan den urtean eginiko ateraldi eta ekintzak izanen dituzte aipagai (podolo-

goa, gimnasia, sukaldaritza...) eta aurtan eginen ari dituztenez ere arituko dira. Ondotik, haimeketakoa emanen da.

Sukaldaritza ikastaroa

Iñaki Pikabea sukaldariaren gidaritzapean Larraburu jubilatuko el-

kartean azaroan hasi zen sukaldaritza ikastaroa otsailaren 26an akabatu zuten. Zazpigarren urtea da ikastaro hau eginen dela eta 22 lagunek hartu dute parte aurtan. Ikastaroa akautzeko afaria egin zuten martxoaren 11n Anttonion.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

J. RAMOS
zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut

Tel: 948 631 342 BERA - Tel: 948 637 172 LESAKA

SAROBE

okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

HERRIKO

OSTATU - JATETxea

MANUEL TABERNA S.L. BIDASOA K/82 - 31780 BERA - NAFARROA
Tel: 948 631 342

IGANTZI

Martxoaren 1ean egin zen Baratzondon urteko batzarra

Bertzalde, Azinda Kofradiak bere eginkizunekin akautzea erabaki du

Oskar TXOPERENA

Nahiko jende gutti-ekin, hogeita bortz bazkidekin egin zuten martxoaren 1ean Baratzondo Jubilatuen Elkarte urteko batzarra. Ohikoa denez, urtean zehar egindako ekitaldien berri eman zuen Juntak (Bazkideen ataraldiak, mus eta partxis txapelketak eta finale-tako bazkaria, San Juan Eguneko besta, etabar..) eta diruzainak kontuen berri ere bai. Segidan Juntan sartzeko hiru kide berri aukeratu zituzten: Lehendakariorde berria Bittoriano Txoperena, diruzaina Juanita Urtxegei eta bokala Ines Mari Etxeberria.

Igantzi-ko palistak bikain

Lehenengo batean aipatu genuen Bittor Txoperenak bigarren mailan eta Guillermo Antxordoki eta Xebe Txoperenak lehenbizikoan irabazia zutela Lesakako Pala Txapelketa eta horrek eskubidea eman ziela Nafarroakoa jokatzeke. Bada, Bittorrek txapeldun gelditzea lortu zuen Nafarroako Txapelketan bere mailan eta Guillermo eta Xebe azpitxapeldun gelditu ziren.

Martxoaren 8an, berriz, Leitzan jokatu ziren Euskal Herriko Klubarteko Txapelketaren finalak eta honetan bai garraitu zuten txapela etxera Guillermo eta Xebe,



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Gehienetan berri eta argazki eskasian ibiltzen gara, baina azken bolada honetan iñauteetako argazki bat sartu ezinik ibili gara. Berandu samar baldin bada ere, bat agertuko dugu, larunbat ilunabarrean ibili zen partxis taldearena.

bek, Gasteizko Erreka-leor Elkarte urteko Martinez eta Ortzi 30 eta 20 irabazi ondotik. Erran behar da gaur egun Donostiako Real Sociedad ordezkatuz ari direla biak. Ea lortzen den poliki-poliki Biltokin palatalde indartsua osatzea eta txapel hauek herri-ara ekartzea.

Azienda Kofradiaren bilkura

Martxoaren 2an egin zen Baratzondon Azien- da Kofradiaren azkene-ko bilera. Hala erabaki zuten bertaratutako Kofradiaren hamar bazkidek. Izan ere, denetara hogeitaz bazkide bertzerik ez denez, horietakoren

baten azindei zerbait gertatuz gero, garesti ateratzen omen zaie gainerakoei egin beharreko ordainketa. Horrela bada, elkarri azindak aseguratzeke ia zazpi hamarkada iraun duen tradizioa hautsi da, inguruan nekazaritzak bizi duen beherakadaren bertzalde ondorioetako bat.

FLASH

Telletxeatarren bilkura

Martxoaren 9an izan zen Telletxea Arozenatarren bilkura. Urrotzetik 50. hamarkadan Berrizaungo Larrizera etorritako familia handia da Telletxeatarrena. Hamabortz senidez osatuta zegoen, eta lehen-goan gaur egun bizi diren hamahiruak elkartu ziren Igantzin, euren familien arrimuan. Gaur egun bortz bizi dira Igantzin eta seigarren baten familia ere bai.

Euskara Batzorde irekia

Bi deialdi luzatu ditu Biltoki Elkarteak udaberri hasiera honetarako. Behin edo bertz guttienezko kopurua bete ezinik gelditu badira ere, aurtien ere sagardotegi batera joateko zerrenda zabaldu dute ohar- tabloian. Oraingoan Zubietako Astiazaran Sagardotegira martxoaren 29an joateko asmoa daukate eta prest da goenak izena larunbatera arte, 22ra arte, ematen ahal izanen du. Ordutegiak eta baldintzak, erran bezala, Biltokin bertan ikustea da hobereena. Bertzalde, frontenis txapelketa ere apirilaren 5ean abiarazi nahi dute eta bikoteen izena emateko 28ra bitarteko epea izanen da.

UNIONE - GAZTEGIA

Altzate, 19-948630786 • BERA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

Alberto RETEGI

abokatua

Altzate 17 • BERA • © 948 630 763

BORTZIRI


UNSION ANAIAK

sukalderako altzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA

Tel eta Faxes: 948 637 266



PERTSONAIA

Mikel ALTZURI

Arantzatik Goizuetara ordubete eta 33 minututan

Ofizioz kirolaria ez izanagatik, zale amorratua da Mikel Alzuri Apeztexea gaztea. Lasterka ibiltzeko afizioa guzien gainetik dago. Aintzin hortan bi lagun arteko solasaldian erreparatu zen Mikel. Bi arantzarek erraten zuten hiru denbora egin direla Arantzatik Goizuetara mendiz egin duten lagun artean: Bi ordu eta 10 minutu; ordu bat eta 50 minutu; eta ordu bat eta 40 minutu. Martxoaren 8an, ordu bat, 33 minutu eta 30 segundutan egin zuen bidaia 27 urteko arantzarrak. 9:00etan herriko plaza abiatu, Donato Larretxea lekuko, eta erraniko denbora hortan ailegatu zen Goizuetara, testigu, bertako harakina, Simon Apeztexea hantxe zuela. Ez da horrelako apostuan sekula aritzen, baina ze denboratan egiten ahal zuen jakiteko kapritxo bat bertzerik ez zuelako egin zuela ibilaldia erran zigun.

ARANTZA

Herriko baserri eta etxeen izen zerrenda ikusgai dago udaletxean

Maiatzaren 1a arte egonen da, norbaitek zuzenketak proposatu nahi baditu

Nerea ALTZURI
Otsailaren 20an Guardia zibilak Juan Del Olmo epailearen aginduz, Euskaldunon egunkariko egoitzak itxi eta hamar lagun atxilotu zituen. Geroztik, egunkaria sei hilabetez guttinez ixteko erabakia eta atxiloturiko sei lagun gartzeleratzea eta atxilotuta zeuden inkomunikazio denboran zenbaitek jasandako torturak salatuta dituzte. Inguiruro honetan gizartea mugitzen ari da, euskarazko egunkari bakararen itxiera eta aspaldion euskalgintzak hartzen dituen ostikoen kontra egiteko.
Martxoaren 13ko elkartasun egunean parte hartu zuten herritarrek: goizeko lanuztean, ilunabarreko elkarretaratzean... Hilaren 7ko osoko bilkuran, herriko etxeko udalbatzak, Euskararen Kontseiluak aurkeztu mozioa onartu zuen, «Egunkariaren kontra eginiko erasoak eta euskalgintzako ber-



Herri kirol jolasak 2003
Martxoaren 9an Nafarroako herri kirol jolasen lehenengo jardunaldia egin zen Lakuntzan. Arantzako haur eta kadete mailako talde bana ari da proba konbinatuan lanean aurten ere. Joan den igandean Arantzako egitekoa zen bigarren herri kirol saioa. Indartsu hasi dira herriko gaztetxoak. Lakuntzako saioan, haur mailako arantzarrak bigarren postua lortu zuten eta kadete mailakoek gaztetxoek berriz, lehenbiziko akautu zuten sailkapenean.

tze erakunde batzuen kontra lehenago izandako bertze hainbat, euskararen normalizazioaren kontrako estrategia kalkulatu eta iraunkor baten barrenean» kokatzen direla berretsiz. Gisa berean, Eus-

kaldunon Egunkariko ordezkari zein erasotutako bertze hedabide eta erakundeko kideei babes eman zaie; atxilotu eta gartzeleratuena askatasuna eskatu eta egunkari berriaren harpidetza bat egiteko kon-

promezua hartu du udalak.
Bien bitartean, martxoaren 7ko udalbatzarraren bertze gaien artean, AFANek, 1936ko uztailaren 18ko guda zibilaren barreneko kolpe militarren ondorioz Nafarroan afusilatutako eta desagertaraziak izan zirenen senide eta lagun elkarteak igorritako proposamenari babes ematea erabaki zuten udalbatzak.

Besta batzordeko bilera

Aintzineko alean aipatu bezala, herritar talde bat herriko bestak prestatzen hasia da. Ortziralean, hilak 21, arratsaldeko zazpi terdian beste batzordeko bilera izanen da Herriko Etxean. Berriz ere deialdia egina da herritar guzietan. Bilera idekia da, norberak bere iritzia eta proposamenak aurkezteko abuztuaren 14tik 17ra bitartean izanen diren lau beste egunak antolatzeko.

ALBERGIA JATETXEA
ATERPE ALBERGIA
© 948 634179
ARANTZA

Iriarte-Echandi, s.l.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
ALFONBRAK SALMENTA
PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

MALERREKA

Behin behineko bi lanposturako deialdia egin du Mankomunitateak

Administrari laguntzaile eta giza laneko teknikariak behar ditu

ttipi-ttapa

Malerrekako Zerbitzu Orokorreko mankomunitateak administrari laguntzaile lanpostua behin betikoz ateri arte aldi baterako administrari laguntzaile bat kontratatu nahi du.

Aurkezten dena eskola graduatua titulua, lehen mailako lanbide heziketa titulua edo baliokidea izatea beharko du. Euskara jakitea derrigorrezkoa da. Probak eginen zaizkie, EGA titulua dutenei izan ezik. Lansaria funtzionarioen D mailakoa izanen da eta %12ko osagarria.

Bertze aldetik, Mankomunitateak 2003ko babesturiko giza lana eta gizarteratze arloko aktuzioak egiteko arduratzeko, aldi baterako, tekniko bat ere hartu nahi du. Beti ere lana Nafarroako Gobernuko Gizarte Institutuko diru laguntzaren menpe izanen da. Aurkezten dena Gizarte Lanaren diplomadun titulua izatea beharko du. Lanal-



Artxibokoa

Euskal Herriko txirrindularitza itzulia apirilaren 10ean ailegatuko da eskualdera. Malerreka eta Bortzerrietan barna pasatu ondotik, Donezteben izanen du helmuga egun horretako etapak. Orain dela hiru urte, Doneztebek lehen aldiz hartu zuen itzuli honetako etapa bukaera baita biharamoneko irteera ere. Oraingoan, etapa Gasteizetik abiatuko da eta Malerrekan Leitizan barna sartuko da, Doneztebetik Lesakara hartuko du eta Igantzitik Berrizaunera jautsiko da, berriz ere errepide nagusitik Doneztebera itzultzeko. Oraingoan Intxureako bidegurutzean barna Saldiasera igo beharko dute txirrindulariek eta handik Doneztebeko helmugara jautsiko dira, Urrotzen barna.

dia %90koa izanen da eta kontratua horrela eginen da: %45 hezitzaile bezala eta beste %45 gizarte langile bezala. Lansaria Nafarroako Gobernuko Administrazioari hitzarmenaren arabera izanen da, hau

da C mailakoa hezitzaile lanentzat eta B mailakoa gizarte langile lanentzat. Euskara jakitea derrigorrezkoa da eta probak eginen zaizkie, EGA titulua dutenei izan ezik. Gainera proba teoriko-praktikoa ere

eginen da. Bi deialdiarako interesatuek Mankomunitateko bulegoan aurkeztu beharko dute eskaera heldu den martxoaren 31ko 14:00ak arte. Bulegoan daude deialdien oinarriak eta eskaera ereduak.

Arkupeak elkarteak Erriberara apirilaren 3an

ttipi-ttapa

Apirilaren 3an Erriberara bisita eginen du Arkupeak erretiratuen elkarteak. Bertan parte hartzeko martxoaren 20tik 26ra eman behar zaie izena herriko delegatuei, 25 euro ordainuz. Autobus irteera ordua izena eman ondoren adieraziko da. Villa de Castejón hoteletik abiatuta Bardeak bisitatuko dituzte, antolatzaileen ustez «hemengo jendearentzat bertze mundu bateko lurra irudi duen parajea». Aguilares, Cañada Roncalesa, Raya, Rayón, Piskerra, Castil de Tierra, Barranco Grande eta Yugoko Amabirjinarren ermita bisitatuko dituzte, non bista harrigarriak omen daude. 14:30etan bazkaria izanen dute Villa de Castejón jatetxean menu bereziarekin. Bazka ondoan, 16:30etatik 18:30etara dantzaldia izanen dute eta gero, autobusak bueltan abiatuko dira.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizatu

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

616 513 497

Pititi
ESKABAZIOAK

C/Amalia
32700 DONEZTEBE (NAFARRA)

GOIZUETA

Nafarroako bertso txapelketaren azken finalerdia herrian izanen da

Martxoaren 23an, 16:30etan Udaletxeko Ganbaran

Esteban AROTZENA

Xabier Silveira, Xabier Legarreta, Goizuetan jaiotako Aritz Saragueta, Iñigo Olaetxea, Miren Artetxe eta Iñigo Ibarra bertsolariak kantatuko dute igande honetan Herriko Etxeko Ganbara aretoan Nafarroako txapelketako hirugarren eta azken finalerdia izanen den saioan. Goizuetako hau bukatu orduko jakinen dira, beraz, ondorengo igandean Lesakako finalean parte hartuko dutenen izenak.

Jon Apezetxea azpitzapeldun

Ederki jokatu bazuen

ere, Jon Apezetxeak ez zuen Umore Onarentzat Euskal Herriko klubetako txapelik lortzerik izan, 19-22 galdu baitzuen finala Azkoitian bertako ordezkariaren kontrako partida gogorean.

Aurtengo iñoteetan herri osoak parte hartu duela esan daiteke. Mozorroen taldeak markak hautsiz, 48 lagun; eskolako haurrak bi konpartsa koloretsu eginez; aerobiceko emakumeak berdin; eta festa osatzeko, gaueko giroa (asteartean eta larunbatean batez ere) paregabea.

Eskuineko argazkian, Kaliforniako Joseph gazteak parte hartu zuen mozorroen taldean.

ARGAZKIAK: ESTEBAN



ARESO

Unibertsitateko euskara legearen eta Egunkariaren itxieraren kontrako geldialdiak egin dira

Otsailaren 26an eta martxoaren 13an eskolan

Juana Mari SAIZAR

Otsailaren 26an bi orduko geldialdia egin zuten eskolan Nafarroako Gobernuak unibertsitateko ezarri nahi duen euskararen presentziaren mugak salatzen helburuarekin. Ikasle euskaldunaren kalterako baitira neurri hauek.

Egunkariaren itxieraren kontra

Martxoaren 13an ordubeteko lan uztea egin zen eskolan Egunkariaren itxieraren kontra protestatzeko.

Gereñoneako errepedea

Gereñonea doan

errepideko lur jauziaren konponketak Hirurteko Planaren barnean egingen da.

Nafarroako haur kantu txapelketa

Nafarroako Haur Kantu txapelketan Alaitz, Josune, Gorka eta Irantzuk parte har-



ARTXIBOKOA

Jaione Olazabal kantari ere aritu da Kantu txapelketetan. Aurten, antolatzaile izateaz gain, herriko taldearen erakusle ere bada.

tuko dute, txikien kategorian. Martxoaren 29an abestuko dute Donezteben «Beldurrak ahaztuta» kantua.

Erakuslea Jaione Olazabal du talde honen. Txapelketako antolatzaileetako bat ere Jaione da.

LEITZA

Hirigintza plana abian jada

250 etxebizitza eta gunee berdeak egingen dira

Mikel ILLARREGI

Otsailaren bukaera aldera, hurrengo hamar urtetan herrian arautuko duen bilakaera urbanistikoa abian jarri zen. Aurreko arauak 1984. urtekoak dira eta aspalditik ikusi da zaharkitua zeudela, Leitzak izan duen aldaketa kontuan harturik. Duela bi urte izan zuten hasierako onarpena.

250 etxebizitza horietatik babes ofizialeko etxebizitzek %30 suposatzen dute, nahiz eta hasieran %43a ezarria zuen udalak, Maimur parajea, bertan 50 babesutako etxebizitza proposatzen baitzen. Honekin batera kirolgunea ere aurrerikusten zen. Nafarroako Gobernua ez du puntu hau onartu.

Berdeguneak ere, legediak eskatzen duenaren ia bikotza ezartzen dira, guzira 30.116 metro koadro. Aipagarria da Landa Goikoa eta

Amazabal lotuko duen erreka bazterreko paseobidea.

Honetaz gain, ez-urbanizagarri diren guneetan, etxebizitzak eraikitzea arautzen du, baldin eta lau mila metro koadroko baino partezela txikiagoak ez badira eta honen %66a gutxienez mendi, baso edota nekazari erabilerrako zuzendurik bada. Era berean %10a bertako arbolak aldatu behar dira.

Bestaldetik, eraikin katalogatuak edota garrantzi kulturala edo historikoa dutelako zerrendatu egin dira.

Egungo surtidorea Azpikoerrotako Ariztira pasako da eta herri barneko errepideak ere berantolatuko dira.

Landa Behekoa	Landa Goikoa	Azku
25.725 m ²	12.200 m ²	23.139 m ²
129 etxebizitza	38 etxebizitza	58 etxebizitza
32 Babes Ofiziala	30 Babes Ofiziala	
Eremu dotazionala	Eremu dotazionala	



ARGAZKIA: IDOIA ZABALETA

Larrain plataforma indartsu

Martxoaren hasieran Larrain plataformaren aurkezpena egin zen herrian. Autodeterminazio Eskubidea eta lurraldetasuna (Aturri eta Ebro ibaien arteko eremua) banatu ezin daitezkeen oinarriak direla diote. Euskal Herriko herri gehienetan bezalaxe, hemen ere, euskal herritar abertzale eta ezkertiarrek bildu nahi dituzte, aurrerantzean ere zeregin franko baitago eta honetarako indarrak bildu behar direlako. Hiru zutabe ezberdinen defentsan agertu da talde hau: batasun politikoa eta demokrazia, justizia soziala eta euskara.

Industriarako lñurristako industrialdea indartu nahi da eta behar gehiago izanez gero, Lizarmutur parajea egingen da, errepidearen beste aldean alegia. Plana burutzeko lurrak, partzelak alde zurretik eskuratu behar dira eta hau, konpentsazio sistema, borondatezko

errepartzelazioa, kooperazio sistema eta espropiazioaren bidez egingen dira.

Beste leku batzuetan eraiki ahal izateko aukera aurrerikusten bada ere, leku puntualak dira eta babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza libreak aurrerikusten dira.

FLASH

Mendi irteera Iparlara

Mendibildi taldeak antolatuturik, hile honetan Iparla mendira izanen da irteera. Baztan aldean, muga egiten duen mendia, alde aldeko eguraldia eginez gero, oso ibilbide polita gertatzen da. Irteera martxoaren 30ean izanen da goizeko 8:00etan plazaik aterata. Alde zurretik izena eman behar da Maimur edo Astiz liburudandan, martxoaren 27a baino lehen.

Zinemako filmak

Ostiral eta igande honetan, martxoak 21 eta 23, «Ciudad de Dios» filmea izanen da ikusgai. Heldu den asteburuan, martxoaren 28 eta 30ean, «Los lunes al sol». Beti bezala, ostiraletan 22:30etan hasiko da emanaldia eta igandetan 19:30etan.

noski. Kafekazioa, gas berogailuen bitartez martxan da. Eserlekuak oso egokiak dira. Proiektore berria... Herri batean askoz ere gehiago lortzea zail xamarra da. Gainera, filmen aukeraketan eta proiektzioaren ardura bolondresak betetzen dute. Bukatzeko, zinema bezala, beste hainbat ekitaldi ere badela esan eta hauen falta, esan ohi den bezala, falta direnean somatzen da.

KULTURA

Kultur ekitaldietan jendearen partehartze zabalagoa eskatu dute antolatzaileek

Esan beharra dago herri honetan kultur egitaraua oso aberats eta interesgarria dela. Dena den, antolatzaileek orohar dioten modura, erantzuna ez da behar bezala gertatzen, zenbait kasu salbuespen direla. Zinea aipatzea, beste ekimen ezberdinen artean adibide besterik

ez da, baina oraingo honetan hau bera aprobetxatuz, ez dakienarentzat esan, zinema saio bakoitzean aspaldi honetan hamar lagun baino gehiago ez dela zinemazalaztzen. Pelikulak berriak eta «izen handia» dutenak gehienak. Gustukoa edo ez norberak neurtu behar du

Zapatadenda
Kalotxa.
Osagarriak
Konponketak

Leiala 42 Bera 31100 Nalorra 948 621110



2003an

OINETAKOAK



B. ALMANDOZ
OINETAKOAK

*Oinetakoen salmenta
eta konponketa
Osagarriak*

Santiago 47 • © 948 580387 • ELIZONDO

Udaberri-udako denboraldi berriak, oinetakoei dagokionez, hagitx aukera zabalak eskaintzen ditu, bai estiloetan baita koloreetan ere. Emakumeendako zapatak eta janzteko sandaliak ditugu, takoi altuekin eta punta finekin. Takoietan ere aukera zabala dago. Denboraldi honetako koloreak urdinak, bakerorako joera handiarekin; beige guziak (txuritik hasi eta marroia bitarte) eta grezi koloreko gorria dira. Sport lerroan, klase aunitzeko zapata eta sandaliak izanen ditugu. Beraien ezaugarri nagusia erosotasuna da, plantilla eta larru hagitx goxoeekin. Oinetakoei apaingarri ezberdinak dituzte, zurmiora lotzen diren sokak eta abalorioak adibidez, aldi berean hippie eta etniko itxura emanaz. Ezin ditugu espartzinak ahanzi, konbinazio eta larru gero eta ikusgarriagoak eskaintzen baitituzte. Zueko edo kalotxa klase guziak ere aunitz erabiliko dira. Guzien artean, bota kanperaren kortea duen zuekoa nabarmenduko da.

Gizonezkoen zapatak ere erosotasunean oinarrituko dira, ongi janzte-rako orduan nahiz sport lerroetan. Haurrek konbinatzeko errexak diren zapatakizaten segituko dute, helduen kolore berdintsuekin. Berriz ere kolore bakeroa azpimarratu behar da, adin bakoitzerako egokiak diren formekin.



**Ostargi
Optika**

Moda-modako eguzki betaurrekoak

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lentilen adaptazioa
- Begietako tentsioaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 3 urteetatik aurrerako haurren errebisioa

Bidasoa 8 • BERA • Tel: 948 630 753

Osarriei dagokienez, boltsoetan aukera hagitx zabala da, janzteko nahiz sport lerroko oinetakoei konbinatzeko errexak. Apaingarri eta abalorio ezberdinak ibiliko dira. Painulu eta pasminen eleganzia eta edertasuna ere azpimarratu behar da. Lepoan lotzen den painulu edo zapi ttikia erabiltzen segituko da, beti ere kolore aunitz eta material ezberdinak erabiliz eta denboraldi honetako arropa eta oinetakoei konbinatzeko izugarritzko aukera ematen dutenak.

Aldakako zinturoiak eta udako pareoak ere ezin ditugu ahanzi.



Adela Arlegi (KALOTXA-BERA)



PIKABEA mujer

Imakuntzako moda

Udaberri-udako kolezioak

Nagusia 5 (Elizaren ondoan) • 948450207 • DONEZTEBE

udaberri udako joe -

OSAGARRIAK

Datorren udaberri-udako denboraldiak oinarrizko bi joera izanen ditu, eta bietan kolorea izanen da protagonista. Alde batetik, haur eta gazteen arropetan nabarmentzen diren kolore biziak. Bertze aldetik, kolore xuabeagoak, pastel tonuetan, batez ere emakume helduari eta udako osagarrientzako pentsatua.

Arropa eta osagarriek etniko itxura izanen dute, baita hippia ere eta hori ator, oinetako, kazadora, boltso, sandalia, foular, zapi eta loreztatutako agenda ttikietan ikusiko da. Osagarriek tonu pastel eta turkesak hartuko dituzte, eguraldi onarentzako espezialak. Boltsoek kolore hagitz ezberdinak izanen dituzte: beige, hondar kolorea, gorria, arroxka eta marinoa. Larrukiekin apaingarri eta osagarri alaiak eta dibertigarriak eginen dira.

Oihalei dagokienez, batez ere Indiatik datozen kotoia edo zeta ren moduko ehun naturalek garrantzia hartuko dute.

Bitxietan, zilarra harri natural, mineral eta harribitxiekin konbinatuko da. Pultserak, lepokoak, koilareak, belarritako handiak, ile-pasadoreak, harriak dituzten eraztun lodiak... Berrikuntza mordoa izanen da, pieza klasikoenen eleganzia eta onarpena ahanzi gabe.



GIZONENTZAKO OSAGARRIAK

Larruzko eta zilarrezko lepoko eta pultserak ageri dira gizonezkoen osagarrien artean. Koloretan, gorria eta urdina, beltzarekin konbinatuz; zilarrezko hebillak dituzten gerrikoak, turkesa eta nakarrekin konbinatuak eta marrokineria orokorrean aunitz erabiliko da.

Goi mailako diseinatzaileen artean, gerrikoak eta kautzuzko uhalak dituzten erlojuak proposatzen dituzte. Horretaz gain, berrikuntza gisara, aldi berean mahai gainerako eta bidairako baliagarria den erloju-iratzargailua proposatzen digu Antonio Mirók.





«Kontrastea aunitz...
estilo ezberdinet...

Itxura militarra

Itxura militarreko arropak galtza, ator eta kamisetetan ageri da, Kamufflajeko estanpatuak, oliba berdean, garbia edo loreekin nahasita. Hebilla handiak dituzten kamisetak agertuko dira, kotoiak eta rejillak konbinatuz. Sakel handiak dituzten loneta galtzak. Kontrastea erabatekoa da: Beheko aldean «puinoak» dituzten galtzak takoidun zapatekin konbinatzen dira, baita tela eroria duten galtzak, zetazko edo satenezko ukituak dituztenak, zapatilla zakarrekin edo estilo militarreko botekin.

Bakeroaren garrantzia

Arropa klase guzietan bakeroak leku garrantzitsua izaten segitzen du. Tela bakeroa kotoizko kamisetetan nahasten da, detaile gisara, bula-

Datozen joe -

Kontrasteak

Udaberriarekin eguraldi ona ailegaten da, egunak luzatu egiten dira eta gure jantziteria aldatzeko go-go sartzan zaigu. Pasarela famatuenetan agertzen den moda gure karrketan jenderatzen da. Aunitz dira denboraldi honetako joerak, baina kontrastea aunitz erabiliko da. Hau da, itxuraz estilo ezberdinetakoak diren arropak konbinatuko dira.

Erromantikoa eta hippie-a nahasiz

Joera «erromantikoa» «hippie» ukituekin blusa eta ator arinetan edo gasa erdi transparentetan ageri da da, kolore ezberdinetan baina txuria nabarmenduz, Ibizako estiloko forma eta bordatuekin. Estilo berean luzera ezberdinetako gonak eta soinekoak ditugu. Ehun frexkoak azala estaltzeko, baina formak intsinuatuz. Kotoiak, lihoak, gasak... udaberri honetako frexkoena, baina batez ere udakoak.

Joera orientala

Joera «orientala» itxura «txinarreko» ator eta soinetan ageri da. Hau, kultura honetako ehun eta estanpatu tradizioaletan nabarmentzen da, baina, aldi berean, «surf» inspirazioko loreekin kontrastatzen du. Lerro ezberdinak nahasten dira, arropen ukitu orientala emanez.

MARI CARMEN
Arropa KONFEKZIOAK
Haur eta helduentzako arropetan espezializatuak
Brouha Iriarte 22
(Antzinekoa ondoan)
ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 883

Gazteendako moda
SINA
Albistur 3, behea
© 948 637951
LESAKA

FANTXIKE
Mertzeria - Opanak - Lentzeria
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA
Jaime Urrutia 15, ELIZONDO - Tfnoa: 948 580 312

Ibarrola
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia 6
DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 463

DIESEL
JUAN J. PIKABEA
Arropa konfekzioak
Senargalentzako trajeak
Gizonendako jostugintza
Egindako trajetan aukera zabala
Galtzak 70 neurria bitarte
Atorrak 54 neurria bitarte
Jertseak ere taila handiak
Amezia z/g.
DONEZTEBE
948 451 670

Startzuzak
Eztegora 12 - BERA
Tfnoa: 948 631 425

rraldea markatuz edo kamisetaren bertze estanpatu bat balitz. Udako beroetan errexago eramateko tela bakeroa finagoa eta arinagoa egiten da. Jertsei eta txaketek makrame laboreak gogorarazten dizkigute. Puntua eta gantxiloa ere hagituz present daude. Bertzelako osagarriek, hala nola, koilare, eraztun, pultserek... gainerako arropen estilo etniko berari eusten diote. Larria bezalako materialak medalo handiekin konbinatzen dira.

Koilare eta gerrikoak


Koilare ikusgarriak baditugu, hezurrean, turkesan edo koralean eginak eta metalekin nahasiak.

Gerrikoak «militar» estilokoak izanen dira, abalorio eta serrajeekin. Boltsoetan, garrantzi berezia du formen diseinuak, kolore biziak izanen dituzte, itsas maskorak josita, ukitu orientalarekin...



Beraz aukera ugari daude hautatzeko, orain bakarrik eguraldiak laguntzea eta uda ederra izatea gelditzen zaigu.


itz erabiliko da, beraz, itxuraz
akoak diren arropak konbinatu-



Deñe

LENTZERIA • MERTZERIA


Tel: 948 627 514 • Beheko Plaza 8 • LESAKA



BAINUJANTZIAK

Aste Santua baino lehen erositu

%20eko deskontua (Little Kiss, Belcor, Alagua)



KORTSETERIA

Joku berriak, udaberriko koloreak...

(Belcor, Triumph, Selmarc, Calvin Klein, Warner...)



TAILA HANDIETAN ESPEZIALISTAK

Erreduktoreak eta kontrol bodyak

(Anifa, Lise Charmel)

Lesakako Beheko Plaza 8an
dotore-dotore utziko zaitugu


Marian

Mendiberri

Beheko Plaza 8 • LESAKA • 948 637 791

PRODUKTUAK %10 MERKE- A G O


- BIOTHERM
- ELIZABETH
- ARDEN
- ANNE MÖLLER
- ALISSI BRONTE



Perfumeak, kolonikiak KABINAKO LANA

%10 MERKEAGO

- Depilazio elektrikoa eta argizariarekin
- Aurpegi azalaren garbiketa
- Erlajazio masaiak
- Mehetzeko tratamenduak Termo-Linea eta lohiarekin
- Mikropigmentazioa - Tatuaiak
- Manikura, pedikura eta maki-





HAURDUN ZAUDE?

*Zatoz! eder jartzeko behar
duzun guztia dauka*



Talde handiak (Tallents)
Haurfauoldiko arropa
Getteenlaka arropa
(eska eta multzoak)
Bitxiak, osagarriak,
opariak...
SORGIN-XULO
Plaza Zaharra 4 • 948 638 032 • LESAKA

PELUAGA

Moda eta osagarriak
Colon Pasealekua 7
20302 IRUN
Tel-Fax: 943 622816



Ongi hornitutako **armai-**

Arroparen armairua ongi hornitua egotea komeni da urte osoan. Uda-berri-uda denboraldirako, «cargo» galtza batzuekin hasi behar da, hau da, sakel eta kremailera aunitz dituztenak. Aukerarik onena kolore beltzekoa da, baina ahal baldin baduzu, ausar zaitetz berde militar koloreko batekin. Aisa konbinatzeko modua izanen duzu kamiseta tirantedun txuri eta beltzekin, hauek ere nahitaezkoak zure kajoian.

Edizio mugatuko Puma, Adidas edo Nike deportibek ere, joku handia emanen dizute, galtza bakero batzuekin, denim gona batekin edo 70. hamarkadako estanpatu batekin jartzeko modua izanen baituzu.

Hippy modaren boom-a joan den urtean izan bazen ere, oraindik soineko txuriren bat gordetzea komeni da, tela goxo eta arinekoa, 24 ordu-tan erabiltzeko modukoa. Goizez, lanera edo erosketak egitera joateko, saharauiar tipoko txaketa batekin jartzen ahal da; gauetz, txokolate koloreko eta urre koloreko metaleko takoiak dituen sandalia batzuekin ongi emanen duzu.

Kotoi edo terziopelozko sudaderak ere modan daude. Gogoratu behar duzu kirolerako arropa eramaten dela eta konbinatu ahal izanen duzu, adibidez, gona polit batekin eta takoidun zapata batzuekin.



Barreneko arropa moda -

Barneko arropen moldakortasuna eta bainurako «kruzero» korteak dira lentzeria eta bainurako modako ezaugarri nabarmenenak 2003ko udaberri-udarako.

Abanguardiaro diseinuko moda; kanpokoekin nahasten diren barneko arropak, retro ikutua duen sensua-litatea eta ehun ultrateknikoak, arropa dinakimoak eta prestazio handi-koak dira udaberri-udako modaren oinarriak. Bainurako modarako, korte sofistikatua eta hagitx eleganteak, kruzero batean ere erakusteko mo-dukoak ageri dira. «Country» inspi-razioa, graffiti motiboak eta lore es-tanpatuen bertsiotzak, dira uda-ko kolezioetan agertuko diren osa-gai nagusiak.

Barneko moda eta lentzeria


Azido tonuetako transparentziak, bordatu erakargarriekin edo lore handiekin aberastuak, diseinu ele-ganteko eta gama altuko barneko

moda ekarriko dute. Azken denbo-raldietan baino xumeagoak, brilloek oraindik paper garrantzitsua bete-ko dute, efektu sofistikuak sortuz. Barneko arropa sensueltasunez eta probokazioz hornitzen da, gizaseme eta emakumeen gozamenetarako. Abanguardiaro diseinua duten arrop-a arinek barneko moda moldakorra osatzen dute, kanpotik ere era-biltzen ahal dena. Honela, kamise-tek edo enkaje forratuko pilardiek «fashion» itxura hartuko dute «prêt a porter» arropekin konbinatuta; lentzeriako kamisoiak, besta egune-tan erakusten direnak; top dizdira-tsuak. Unibertso bikoitza eta mu-garik gabekoa, barneko modatik kan-poko materialaren erabilerak sor-tua edo mundu horretakoak izanik modu original eta harrigarrian era-biliak, enkajea adibidez.

Betiko lentzeriaren zaleendako, iz-piritu frantsestua eta «retroa» iza-nen dute aukeran, etxeen eta te are-toen diseinuetan oinarritua. Joera honetan, xehetasunek garrantzi han-dia dute: dekoratutako tiranteak, la-zitoak, puntillak eta material ez-berdinen konbinazioak moda kar-gatu xamarra, baina ederra osatzen dute.

Liga eta kortsea

Azkenik, formula ezberdinak erabil-tzen dituen «joskurarik gabeko» tek-nologiak, eta akabera berritzaileak dituzten fibraz egindako ehunek, itxura minimalista eta ximplea duen moda osatzen dute. Baina, egitan, osasunerako prestazio tekniko han-diak ditu, baita gorputzaren esteti-ka eta konforterako. Izan ere, «ehun inteligenteei» esker bakterien aur-kako tratamenduak, efektu hidra-tanteak, izerdiaren kontrako ezau-garriak eta bertze aunitz topatzen ditugu barneko arropa hauetan. Ausartenentzat bi dira denboraldi-ko arropa-izarrak: hanka proboka-zioz janzten duen liga eta kortsea, errefortzuekin, bolanteekin eta enkajeekin.



ARIMAK GAUZA GUTI BEHAR DITU;
GORPUTZAK, AUNITZ. GEORGE HERBERT



ZAPATADENDA
Parrokia, 17 • DONEZTEBE
948 450 289

IPINGI
tenporadako arropetan aukera zabala!
Eskontzetarako arropu berezia
• Bitxikeriak
• Komplementoak

Santiago 88 • ELIZONDO
Tfnua: 948 580 939





KULTURKARI
publizitatea • zerbitzuak

boletoa

Saski eder bat eta afaria
bi laguntzat

1€

2002ko Martxoaren 20ko LOTTERIAREN
lehen zatiaren altxori finko irabazleak

**kattu
ostatu
jaketxea**

menpek • hobeketa
planet hobetuzak

IBARRA
Bere postakoa eta telefonoa jarri die

Arizteguien 11. SARRAIA • Tolosa • 948.637.373




fakturak



TRANTZURTEKO KONTABILITASUNA


izena	izena
adina	
izena	
izena	
izena	



telefono gidak



diptikoak



logotipoak



orriak



bestetako programak



pegatinak



aldizkariak



kartelak

egutegiak

txartelak

oroitgarriak

ZUGARRAMURDI

Norabide ezberdina adierazten dituzten bide-seinaleak jarri dituzte plazan

Heldu den urtean iñauteriak larunbat eta igandean ospatzea proposatu da

ttipi-ttapa

Ez idurian ere, Zugarramurdi hiru norabideko bidegurutzetako bat da: Sararat, Dantxarinerat eta Etxalarerat. Hori dela eta aspalditik arazoa bihurtua zen herrira etortzen zirenentzat norabide hauek bilatzea, eta hor ibiltzen ziren plazan itzuli eta bueltaka galdurik. Hemendik aintzina ez da halakorik gertatuko zurezko hiru kartel elegante jarri baitituzte norabide hauek seinalatzen. Hoiekin batera ere plazan panel bat eman dute herriko plano batetan toki interesgarrienak adierazten dituenak.

Ateraldiak apez berriarekin

Pedro apez berri gaztea ilusio haundiakin ha-



ARTXIBOKOA

Aurtengo ihauterien hausnarketa egin ondotik proposamen bat plazaratu da heldu den urterako. Oraindik deus ere erabaki ez bada ere, larunbat eta igandean ospatzea proposatu da.

si zaigula erakusten ari daku. Gan den urtean Fatimara irteera bat an-

tolatu zuen; eguberritan Gasteizko jaiotzak ikusterera ere jendea eraman

zuen; eta orain martxoaren 12an, Javierada kontu dela eta, bertze bi

irteera antolatu zituen egun bererako: indarrean zeudenak goizeko 5:00etan hartu zuten autobusa eta Monrealetik oinez abiatuz 25 kilometro egin dituzte Xabierreraino; bertze ibilbidekoak eguerdian ateratzen ziren eta Zangoztatik 12 kilometro egin dituzte.

Iñauterietan aldaketak proposatu dira

Aurtengo inauteriak pastu ondotik azterketa bat egin da eta oraindik deus finkotan gelditu ez bada ere, aldaketa proposamen bat badago: inauteriak larunbat eta igandean ospatzea. Larunbatean mendia eginen zen eta igandean herria.

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdioko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

gaztelu

iturgintza
kalefakzioa
saneamendua
gasa

© 948 510086 / 510156
fax: 948 610856
LEITZA

MARTIKO, S.A.

MARTIKO
Abatekietan
adituak eta arituak

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinu...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

BAZTAN

«Bai Euskarari herrietan» proiektua bideratzeko bi bekadun hartuko dira

Kurrikuluma ortzirala baino lehen aurkeztu behar da

ttipi-ttapa

Baztanen «Bai Euskarari herrietan» proiektua bideratzeko bi bekadunen aukeraketa prozesua abiatu dute Baztango Euskara Zerbitzuak eta Doike! Euskara taldeak. Bete beharreko baldintzak honakoak dira: graduatu eskolarra; idatziko eta ahozko euskara gaitasuna neurtzeko proba eginen da eta gida baimena eta autoa behar dira.

Kontuan izanen dira informatika ezagupenak, moldakortasuna, bertakoa izatea, antzeko lanetan esperientzia izatea eta euskalgintza ezagutzea.

HAMEKA HILABETEZ

Bekaren iraupena hameka hilabetekoa izanen da, apiriletik aitzina. Teknikari maila izanen dute bekadunek eta eguneko hiru ordu inguruko lanaldia. Orotara 10.957,2 euro jasoko ditu, lau hilabeteko kontratazioa barne.



Argazkia: Rakek GOÑIK utzia

Elbeteko plazan, Orakunde egunean (otsailaren 27an) bi zuhaitz landatu eta kolonpio berriak inauguratu zituzten.

Kurrikuluma dokumentatua martxoaren 21eko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar da, Baztango Suinki euskaltegian (948 452471) edo Euskara Zerbitzuan (948 580006). Leku hauetan ere izanen da informazio gehiago interesatuen eskura.



FLASH

Baionarat clown ikusterat

Baztango Kultur Zerbitzuak apirilaren 5erako ateraldia antolatu du Baionara, Slavas Snow Show taldearen mimo clown antzerki emanaldia ikustera. Elizondotik 19:30etan abiatuko dira eta emanaldia 21:00etan hasiko da Baionako udal antzokian. Prezioa 20 eurokoa da eta lekuak mugatuak direnez, Arizkunenea kultur etxera lehenbailean joan behar dute interesatuek. Cirque de Soleil-en barnean bi urtez eskaini dute kalitate handiko ikuskizun hau.

Guazin taldea

Martxoaren 8an egin zuen aurkezpen ofiziala Elizondoko Antxitonea Baztango Guazin taldeak. Gaur egun ideia batzuk legez kanpo utzi direnean, ideia horiek defendatzeko sortutako taldea da Guazin.

LARRALDEA SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKAROZ
© 948 452121

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO
© 948 581807 • 948 581853

Gierresetxea

OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

KATER-BIKE

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking eta haurrentako bizikletak
Arropa eta osagarriak

Salmenta eta konponketa

Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

BAZTAN

1.500 bazkide izaten ahal ditu Elizondoko igerilu estali berriak

Gesport enpresak egindako ikerketaren arabera

ttipi-ttapa

Elizondoko igerileku estaliaren lehen faseko lanak aitzinera doazi. Gesport SL enpresak egindako inkestaren arabera, 1.500 bazkide biltzen ahal ditu Baztan, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdiko bizilagunei eskainiko den zerbitzu honek. Dena den, abonatuak %90 inguru Baztan bertakoak izanen liratekeen. Ganden urteko abenduan egin-

dako 300 telefono elkarriketetan oinarritu da enpresa bideragarritasun plana egiteko. Bizilagunen %47ak kirolen bat egiten duela azpimarratzen da ondorioetan, pilota, mendia, mantenimendu gimnasia, footing, ehizia, arrantza, txirindularitza, aerobic eta futbito batuz ere.

Igerilekuaren erabiltzaileak lau aukera izanen dituzte ordaintze-



Iñauterietako Egun ttun-ttun egunean, Azpilkuetako neska-mutikoak eskean.

ko, urteko abonamendua, negukoa (9 hilabete), udakoa (3 hilabete) eta eguneroko sarrierak. Ikerketaren arabera, gehienak urteko abonamenduaren alde azaldu ziren eta helduek

hilabetero 15 euro ordaindu beharko liratekeela uste dute. Haur, gazte, adineko eta familiei prezio bereziak eskaintzearen alde ere agertu dira inkesta egin dutenek.

Lanen lehendabiziko fase honetan igerilekua estali eta aldagelak eginen dira. Bigarren sauna, bainu turkoa, gimnasia aretoa eta bertze zerbitzuak eraikiko dira.

IKASTETXEA

Baztan Ikastolako Jon Quintano saritu dute Iñigo Arista lehiaketan

Jon Quintano, Baztan ikastolako ikaslea, Iñigo Aristak 2002an lehen hezkuntzako 5 mailako ikasleentzat antolatutako "ibilbide kulturalen" inguruan egindako lanetan saritua izan da. Sari hauek Nafarroako Gobernuko Hezkuntza De-

partamentuak banatu zituen otsailean. Argazkian, Jon Quintano bera ageri da saria jasotzen.

2002ko edizioan 154 ikastetxeko 4.320 ikaslek parte hartu zuten. Hauetatik 35 saritu zuzten.

Zorionak Jon.



Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI

asnáp me
• GIZARTE ETA LAN ARLOA
• KONTABLE-FISKALA
• JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igelnerok...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan-aseguramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errinta aitortpenak

DONOSTIA
Basa Semerari, 4. bulego
Telefono: 948 431822 Telefax: 948 431418
web: telebas@asnapyme.com

ELIZONDO
Sancti Spiritus, 51. bulego
Telefono: 948 580 504
elizondo@asnapyme.com

BERGARA
Zuzenbidea, 1. bulego
Telefono: 948 562238 Telefax: 948 562344
bergara@asnapyme.com

ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • **ELBETE**
☎ 948 45 20 88

SENPERE

ADSL ixuri haundiko internet sarea herrirat helduko da azkenean uztailean

Udako herri langileek beren eskaera egin behar dute martxoaren 31a aintzin

Franck DOLOSOR

ADSL ixuri haundiko internet sarea Senpereraino helduko da uztailean, kostaldean janelo martxan den sistema hori Ipar Euskal Herriko eremuaren %90an ezarriko duela kotz France Telecomek heldu den uda aintzin. Gisa huntan, Wanadoo, Free, Club edo AOL enpresetako zerbitzu zaluak eta merkeenak hartzen ahalko dira Senperen ere. France Telecomek instalatzen ditu behar diren hariak bainan gero bezero bakoitxak hautatzen ahalko du nahi duen enpresa. Duela hilabete batzuk uste zen ADSL ixuri haundiko internet sarea ez zela berehala emanen Lapurdi barnealdean bainan azkenean, France Telecomek ikusi du zerbitzu huntako abonatuak kopurua hiru aldiz haunditu dela Iparraldean 2002an. Gainerat, ADSL a instalatzea gero eta merkeagoa da teknika aintzi-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Faulcon amoztar jaun-andereak harri-bitxi eztaiak ospatu zituzten otsailaren 20an hirurogoi urte baitu esposatu zirela. Galardi jaun-andereak urrezko eztaiak ospatu zituzten otsailaren 17an.

namendueri esker. Ere-arotik goiti ADSL a zontabait herritan ezarriko da eta uztail hastapenean

Senpere osoan hartzen ahalko internet zaluena eskaintzen duen sistema hori.

France-Telecom lan-tegiko arduraduenen artean, BABko hiri elkar-goa eta Pirineo-Atlanti-

koetako Kontseilu Nagusiko hautetsiek ezarzen duten internet sarea osagarri bat izanen da eta ez konkurrentzia. Dena den, herritarrak dira irabazle proiektu berri guzi hauekin gaurko egunean gero eta zailagoa baita teknologia berririk gabe lan egitea edo bizitzea. Hemendik goiti, bakoitxak hautatzen ahalko du zoin sistema ezarri nahi duen bere bulego ala etxean.

Udan Herriko Etxearentzat lana

Udan herriko etxearentzat lan egin nahi duten gazteek beren galdeak egin behar dituzte martxo bururatu aintzin. Eskaerak eta kurrikulumak andere auzapezari zuzenduko dira martxoaren 31a aintzin. Denbora pasa, aktibitateak eta aintzira garbitzeko 18 urte baino gehiagoko zontabait langile hartuko ditu uda huntan ere herriko etxeak.

m bentamiguel
dantza, jantziak eta ospakizunak

Ongi zaindutako sukaldaritza Menuak aukeran

Taldea
Lokala
Jantziak
Ospakizunak

Ibardingo Lepoa • 948 631209

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9etatik 13etara eta 15etatik 19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

AZKAIN

Pilotaren biltzar nagusia martxoaren 29an eginen da

Trinketearen etorkizuna zehazten ari dela espero dute bulegoan

Ihintza, Angela eta Eneko

Martxoaren 29an 5:00etan, Bil Tokin bilduko dira Azkaindarrak Bat elkarteko kide guztiak urteko bilduma egiteko eta ondoko urteko erabakien hartzeko.

Mixel Etxeberri lehendakariak jadanik azpimarratzen du 2002-2003 urteko emaitzak onak direla. Aurten ez bada titulurik bildu ere erran behar da pilotariak maila batez igo direla. Lehenik Marc Berasategik profesional maila erdietsi zuen 2002ko urrian. Laurent Albistur xarean eta Marina Higos eta Karine Higos Palantxan maila gorenean ari dira. Gabi Ibarburuk bigarren mailako final laurdenak jokatu zituen, eta Jon Laduxe eta Xabi Jolimon Frantziako Xapelketa jokatzen ari dira 16-17 urteko mailan. Azkenik jakin behar da 120 pilotari direla elkartean, xapelketan ari direnak edo

pilota eskolan ikasten ari direnak.

Atletismo zelaia

Trinketearena ez bada finkatua oraino, atletismo pista baten eraikitzeko proiektua aintzintatuz doa. Ez bada jakina oraino nolakoa izan den ere, herriak bere pista izan den duela ez da dudarik. Momentuko 245 000 euroko proiektua bozkatua izan da.

Bozkek berak ez du aho batekoa erdietsi. 23 kontseilarietarik bederatzik baizik ez baitu alde bozkatu, 4 kontra eta 10 xuri. Auzapezaren zerrandako batzuek ere ez dira alde agertu. Xuri bozkatu dutenek pentsatzen dute atletismo pistak ez duela lehentasuna merexi bertze egintzaren beharrik badirelako.

Aratzen zigorra ezeztatu zuen Epaitegi Gorenak

Espainiako epaitegi Gorenak Aratz eta Ar-



ARGAZKIA: ANGELA JORAJURIA

Badu orai hilabete batzuek Laduxe trinketearen etorkizuna zalantzan ezarria dela. Gaurregun trinketak ez lituzke publiko handia errezebitzen ez baita legezkoa hortarako. Laduxe jabeak saltzeko asmoa du eta jakin behar da Herriko Etxeak kasua ikertu zuela egun batez behar bada haren erosteko, herriko pilota elkarteak erabiltzekotan. Bainan horri buruz auzapezak ez du erabakirik hartu oraino. Azkaindarrak Bat elkartearen biltzar nagusian zehaztasun gehiago ezagutuko den espero dute pilotariek.

kaitzen kartzela zigorra ezeztatu zuen iragan hilabetean. Audientzia nazionalak 18 urte kartzela zigorra hautatu zuen bi lapurtar gazteentzat 2002an. Epaitegi Gorenak pentsatzen du Audientzia Nazionalak «oinarri juridiko eskasarekin» hartu zuela erabakia eta galdetzen dio «argumentazio indar minimo bat». Audientziak erabaki berri bat hartu beharko du beraz. Horren aintzinean Grazi kontseilariak orroitarazi dio auzapezari herriko kontseiluak mozioa bozkatu beharko lukeela, espainiako konsu-

lari Aratzen hurbiltzearen eskatzeko.

Jean-Michel Iturria

Azkain eta Urruñan arteko bazterrak mihatu zituzten martxoaren 8an eta 9an. Jean-Michel Iturria, 33 urteko gizona eskastu zen otsailaren 28an. Geroztik poliziak bere mihaketak utzi baitzituen, familiak herritarak deitu zituen Oletako kaperan biltzeko eta gizonaren mihatzeko. Bi egun horiek ez zuten deus berri ekarri.

Moda desfilea

Euskaltegiko ikasleek korrika 13aren mo-

da desfilea antolatu dute martxoaren 28an ortziralez Bil Tokin 20:30etan. Korrikaren jantzi berriak aurkezteko asmoa dute. Ondotik Taioak eta zintzur bustitzea prestatuko dute.

Marrazki lehiaketa

Azkaingo besta komiteak marrazki lehiaketa berri bat antolatzen du 2003ko kamisetaren egiteko.

Marrazki guztiak erakutsiak izan dira maiatzaren 3an larunbatarekin arratsaldeko 5etan kiosko gainean. Han berean hautatuko da irabazlea.

udana salazones

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199

**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ZOANSA

FIAT AUDI VOLKSWAGEN

SALMENTA
MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

SARA

Ihizi sasoina bukatu bezain laster arrantzakoa hasi da

Zazpiak Bat elkarteko afaria egingen da larunbat honetan Omordian

Xan HARRIAGUE

